

# la perfumería

de Mercadona

2020KO UDAZKENA

ZAHARTZEARI  
AURRE EGITEKO  
edertasuna

ZURE AZALA HOBETZEN  
DUTEN FORMULA  
BERRIAK

*ILEA*  
distiratsu  
eta osasuntsu  
izateko behin betiko gida



*Perfumatu  
zure ilea*



# AURKIBIDEA

## 4 ILEA DISTIRATSU ETA OSASUNTSU IZATEKO BEHIN BETIKO GIDA

Laztasuna, deshidratazioa, adats makala, gehiegizko koipea, ilea erortzea... Ile politaren oinarria buruazal osasungarria da. Ilike arazo guztietarako irtenbidea dugu, eta onena da erraz eta etxean bertan erabil dezakezula.

## 16 TRENDY AZAZKALAK

Berdea, morea, gorria, arrosa eta grisa, udazkenerako bost tonu, denboraldi honetan azazkalez harro egoteko. Ez ihes egin Butterfly bildumako esmalteen lilurari; maitemindu egingo zaituzte!

## 20 EDERTASUNAREN GARAIA

Hartu denbora, ikasi zure azala zaintzen eta mimatzen, etxean zaudela, eroso-eroso. Azal perfektua izateko formula berriak azalduko dizkizugu. Bihurtu zure beauty moment une berezia.



## 28 FACE PERFECTIONIST

Inperfekzioak minimizatzea, markak eta begizuloak estaltzea, larruazal uniforme lortzea, argitasuna ematea eta bizitasuna ematea aurpegiari. *Face Perfectionist* bildumak zure azala nabarmentzeko behar duzun guztia eskaintzen dizu.

## 32 EYES UP

Begiak eta betileak obsesio bihurtzea ez da gauza berria. Baditugu aurtengo udazkenean begirada zirraragarria harro erakusteko behar dituzun produktuak eta haiek erabiltzeko jarraibideak.

Argitaratzailea: MERCADONA SA  
Fuente del Jarro industrialdea  
Ciudad de Liria, 5 46988 Paterna / Valentzia  
Egilea: Ediciones ELCA  
Inprimatzailea: Jiménez Godoy  
Lege-gordailua: TO-0789-2008

Aldizkari honetan agertzen diren produktuak Mercadonaren produktu-aukera estandarri dagozkie. Espazio-arazoak direla eta, baliteke inoiz produkturen bat ez aurkitzea. Arren, galdetu gure langileei.

Doako alea; debekatuta dago saltzea edo merkaturatzea.

© Aldizkariaren titularrak MERCADONA SA da.

Eskubide guztiak erreserbatuta daude. Debebatuta dago aldizkaria baimenik gabe erabiltzea, osorik zein partzialki, eta/edo erreproduzitzea, bai eta markak eta/edo logotipoak erabiltzea ere.

### Azalean



Hau darama modeloak: Iraupen luzeko arkatz marroia eta, ezpainenetan, Color Fix 05 zk.





*ILEA*  
distiratsu  
eta osasuntsu  
*izateko behin betiko gida*

Laztasuna, deshidratazioa, adats makala,  
gehiegizko koipea, ilea erortzea...

Ile politaren oinarria buru-azal osasungarria da.  
Ileko arazo guztietarako irtenbidea dugu, eta onena  
da erraz eta etxean bertan erabil dezakezula.

# Asmatu ilerako zure lerroarekinXX

## BERTSIO NATURALA, SILIKONARIK ETA KOLORATZAILERIK GABEA

Produktu-lerro honetako osagaien %97 jatorri naturalekoak dira, silikonarik eta koloratzailerikgabeak. Zaindu ilea sakon, haren zuntza errespetatuz, **xanpua**, **maskara** eta **seruma** dituen produktu-lerro **naturala** erabiliz (maskarak eta serumak ez dute silikonarik, koloratzailerik, gatzik edo sulfatorik).

**Zer iletarako?** Ile-mota guztietarako egokia; zaindu, babestu eta elikatu egiten ditu.

**Konposizioa.** Oinarrizko osagai hauek ditu: salbia- eta zedro-olio esentzial naturalak eta ezki-estraktua, xanpuan; eta Abisiniako olio, maskaran eta serumean, leuntzeko eta distira emateko.

**Zer lortzen du?** Jarraituki erabiliz gero, ilea zaintzeaz gain, adatsa askeago uzten du, mugimendu gehiagorekin.

## ERABILTZEKO MODUA

✓ Xanpuaren ondoren, maskara jarri, erdialdetik puntetara ondo zabaldua. Ez eman inoiz buru-azalean.

Utzi 2-3 minutuz, eta urarekin kendu gero.

✓ Serumak orraztea errazten du, laztasuna kontrolatzen laguntzen du, eta ileari distira naturala ematen dio.

Garbitu ondoren eman, ilea heze dagoela, eskuoihalarekin lehortu ondoren.

Eman 3-7 dosifikazio, eta zabaldu erdialdetik puntetara.

Ez kendu urarekin ondoren.



**A**urpegiaren luzapen bat balitz bezala, buru-azalean larruazaleko beste

gune batzuetan baino sebo eta koipe gehiago sortzen da. Osasuntsu izateko, **ez da aski ilea garbitzea.**

Gorputzeko gainerako ataletako larruazalak jasaten dituen besteko ingurumen-erasoak jasaten ditunez, aurpegia zaintzeko errutina bera erabili behar genuke: garbitu, esfoliatu eta hidratatu.

Ileko arazoak buru-azaleko desoreka batetik sortu ohi dira: erupzioak, gorriuneak, sentikortasuna, kartoi-itxurako testura, koipe gehiegi... seinale argiak dira.

## BURU-AZALA OSASUNTSU IZATEKO TIPAK

- ✓ **Elikadura** orekatua.
- ✓ **Estresa murriztu**, kortisol-maila areagotzen baitu, eta, beraz, baita sebo-ekoizpena ere. Psoriasis eta zahia duten pertsonak sumatzen dute estresarekin larriagotu egiten zaiela.
- ✓ Buru-azala asaldatuta badago, lehenik eta behin, gaixotasunik ez dagoela ziurtatu behar da. Halakorik ez badago, **xanpu eta tratamendu egokiak** hautatu behar dira, ilearen erdialdetik puntetarako ezaugarriak eta egoera kontuan hartuta.



## SAIHESTU LAZTEA

Egin ihes ilearen laztasanari eta lehortasanari, eta itxura landugabeari. **Liss Frizz Control** produktu-lerroa lagungarri da adats bihurria menderatzeko, eta leun eta liso uzten du. Lerroa osatzen duten produktuak: **Xanpua**, **Egokitzailea**, **Maskara** eta **Erritua**. Produktu-lerro honetako xanpuak ez du sulfatorik eta erritua 230 °C-ko babes termikoa eta teknologia termoaktiboa ditu.

**Zer iletarako?** Lazteko joera duten ile bihurriak.

**Konposizioa.** Banbu eta zetaren estraktua, ilea egokitzeko eta leuntzeko; kamelia japoniarra, propietate emolienteak baititu; keratina, ilea berregituratzen duen proteina; eta E bitamina, antioxidatzailea (xanpua, egokitzailean eta maskaran).

**Zer lortzen du?** Ile bihurria zaintzen du, ilea laztea saihesten du, eta leun eta liso uzten du. Gainera, **Liss Frizz Control Erritua** lehorgailu eta plantxen gehiegizko berotik babesten du.



### LISS FRIZZ CONTROL ERRITUA NOLA ERABILI

- ✓ Garbaldi bakoitzaren ondoren ematen da, ilea heze eta sakatsik gabe dagoela.
- ✓ 2 eta 6 pultsazio bitarte, ilearen luzeraren eta dentsitatearen arabera.
- ✓ Ondo zabaldu erdialdetik puntetara, ilea leun laztanduz. Ez kendu urarekin ondoren.
- ✓ Erabili lehorgailua eta/edo plantxa termolisatzeko teknologia aktibatzen. Eta, ondoren, orraztu ohi bezala.

## RESTRUCTURING ERRESKATERA

**Xanpua, Maskara** eta **Seruma** dituen **Restructuring** produktu-lerroak ilea barrutik konpontzen du, zuntzak berreraikiz, adats malguagoa, leunagoa eta sendoagoa lortzeko.

**Zer iletarako?** Ezin aproposagoa da oso kaltetuta eta lehor dauden ile hauskorretarako.

**Konposizioa.** SMARTPLEX Technology tratamendu elikagarria (Kreatina + Elastina + Keratina).

**Zer lortzen du?** Konpondu eta indartu egiten ditu ilearen eremu kaltetuenak. Ilea berehala berreraikitzen da. Ilea osasuntsu uzten du.

### ERABILTZEKO MODUA



**Restructuring Mask egunez eta gauez**

1. Eman ile hezean, erdialdetik puntetara, masaje bidez.
2. Utzi jarduten.
3. Kendu produktua urarekin, lehortu eta orraztu.

**GOMENDIOA:** Lehorrean eman dezakezu, eta gaueko maskara gisa bere lana egiten utzi. Hurrengo goizean produktua urarekin kendu, eta ilea distiratsu geldituko da. Noizean behin erabiltzea gomendatzen da.



**Restructuring Serumak** ile luzeenei ere osasuna itzultzen die, eta orraztean sortzen diren haustura eta kalteetatik babesten laguntzen du.

1. Garbitu ondoren eman, ilea heze dagoela, eskuoihalarekin lehortu ondoren.
2. Dosifikatu 3-6 pultsazio, ilearen dentsitatearen eta luzeraren arabera, eta zabaldu eskuekin.
3. Erdialdetik puntetara zabaldu, eta ez kendu produktua urarekin.



## ESFOLIATING BALM ERABILTZEKO MODUA

Zabaldu baltsamoa ile hezean, sustraietatik puntetara, utzi lanean minutu batzuetan eta kendu urarekin.

Ondoren, garbitu ilea ohiko xanpuarekin.

## AGUR ILE KOIPETSUARI

**Detox Xanpuak** koipea kenduz garbitzen du, eta buru-azala purifikatzen du.

**Zer iletarako?** Koipetsuak edo finkatzeko produktuen ezpurutasunak eta ingurumenaren kutsadura pairatzen dituztenak.

**Zer lortzen du?** Garbitu eta freskatu egiten ditu ile koipetsuak.

**Konposizioa.** *Detox complex* izeneko konplexu botaniko purifikatzailea eta pepino-estraktua ditu, C bitamina ugarikoa.

Detox produktu-lerroak, gainera, buru-azala eta ilea sakonki garbitzen ditu, **Exfoliating Balm** izenekoari esker; jatorri naturaleko partikula esfoliatzaileak ditu, eta metatutako hondakinak arrastatzen ditu. Ile-mota guztietarako da egokia, ez soilik koipetsuentzat edo zahidunentzat.





## BERPIZTU KIZKURRAK

**Xanpuak, Maskarak eta Remedyk** osatutako **Bucle Perfect** produktu-lerroari esker.

**Zer iletarako?** Ile kizkurrak zaintzen ditu, laztea kontrolatuz, eta elastikotasuna eta mugimendua emanez kizkurrei.

**Konposizioa** Orkidea-, elastina- eta keratina-estraktua du.

**Zer lortzen du?** Ile kizkurra hidratatzen eta suspertzen laguntzen du.

## Maisu-ukitua

Beti entzun diegu adituei ilea ur epelarekin garbitu behar dugula, ez beroarekin. Ondo da, baina erritua desberdina da ile kizkurren kasuan: kizkurra hobeto zehazten da ur beroarekin, ur hotzak lisatu egiten baitu.

## ERABILTZEKO MODUA

- ✓ **Ile fin eta ondulatua** izanez gero, xanpuaren ondoren remedy produktua erabiltzea gomendatzen da –urarekin kendu beharrik ez dagoen maskara bat, kizkurrak zehazten dituen–.
- ✓ **Ile lodi eta kizkur nabarmenagokoa** izanez gero, xanpua, maskara (2-3 minutu inguru) eta remedy erabiltzea komeni da.
- ✓ **Remedy**, urarekin kendu behar ez den maskara, ile hezean ematen da, garbitu ondoren. Dosifikatu 2-3 pultsazio, erdialdetik puntetara. Lehorrean ere erabil daiteke.







## SOS: NOLA SAIHESTU ILEA ERORTZEA

Udazkenean, urtaro-aldaketarekin, ile gehiago erortzen da. Irtenbidea **Men** produktu-lerroa da: **Erortzearen aurkako Xanpua eta Seruma**. Ilea erortzea saihesten du, eta, aldi berean, buru-azala elikatzen.

Xanpuaren azido salzilikoak esfoliazio leun bat eragiten du, ondoren aplikatuko dugun serumaren lana optimizatzen.


Erortzearen kontrako tratamenduak edo serumak kafeina du, propietate antioxidatzaile eta estimulatzaileak baititu, eta *Pro Hair Technology*, ile sarriagoa eta osasuntsuagoa lortzeko osagai elikagarriak.

## GOMENDIOA

Ilea indartzeko eta erortzea saihesteko berariazko produktuak erabiltzeaz gain, egunero garbitu, inguruko mikrozirkulazioa estimulatzen.

## ERABILTZEKO MODUA

Erortzearen aurkako seruma ilea garbitu ondoren erabiltzen da. Dosifikatu 4-8 pultsazio buru-azaletik 3 cm-ra, eta zabaldu masajea emanez, mugimendu zirkularrekin, xurgatu arte. Ez kendu produktua urarekin, eta eman egunero ile garbian.



# Plus bat duten produktuak



## **BABESTU BEROTIK**

Lehorgailua, plantxa edo kizkurgailua? Bai, baina gehiegi berotu gabe beti. **Termo Protect** sistemak babes termikoa eskaintzen du 230 °C-raino, eta finkapen arina. Plantxak eta lehorgailuak ilea haustea ekiditen du, ez du ilea lazten, UV iragazkia du, distira naturala mantentzen du, eta leuntasun-sentsazioa ematen du.

Erraz ematen da: ile hezetan lainoztatu, aurrez hezetasun handiena toallarekin kenduz.





## ADATS TESTURIZATUA

Efektu hori lortzeko, eman ezazu **Potion**, ile heze edo lehorrean. Hidratatu, definitu, distira eman, laztea saihestu eta indartu egiten du. Ile liso eta kizkurretarako egokia.



## KIZKURRA KIZKURTZEA

Lor itzazu kizkur naturalagoak, malguagoak eta babestuagoak. **Balm Rizos**, elastinaz, papaia- eta grina-estraktuz osatua, bereziki aproposa da ile kizkurretarako.

Hezean ematen da; kizkurrak landu, eta difusorearekin lehortu.



# Jolastu finkapenarekin

## 3 ARGIZARI LOOK ASKOTARIKOETARAKO

**Buztin Estramatea, Argizari Matea eta Argizari Distiratsua,** ile motzerako egokiak diren hiru finkapen-produktu, ilearen forma zehazten laguntzen dutenak bolumena eta testura emanez.

Finkapen normala, efektu matea edo distira, aukeratutako produktuaren arabera; malguak eta moldagarriak dira, laztea kontrolatzen dute eta erraz kentzen dira.

Ile laburra moldaeraza da, hainbat erataraz orraztu daiteke: testura hezearekin, look freskoagoa lortzeko, edo testura lehorrarekin, itxura formalagoa, nahasiagoa edo informalagoa izateko...




## ERABILTZEKO MODUA

- ✓ Ilean eman aurretik, berotu eskuekin, produktuaren testura erabilgarriagoa izan dadin.
- ✓ Sustriatetik puntetara zabaldu, nahi den forma emanez.
- ✓ Ilea xerloz xerlo landu, emaitza hobea lortzeko.



# 24 ORDU NON STOP

Ilea nahi adina aldiz moldatzeko aukera ematen dute, askotariko lookak sortuz.





## BETI NAHI IZAN DUZUN BOLUMENA

Bolumena, distira eta XXL uhinak... Aukera hauetako bat hautatzen baduzu, zure aliatuak **Laka Estragogorra** eta **Laka Estradistiratsua** dira, ile-motaren eta lortu nahi duzun emaitzaren arabera.

**Max Volum Aparrak** bolumena, gorputza, testura eta distira ematen dizkio ileari. Akabera natural eta malgua, trinkotu gabe. Sustrietan ematen da, masajea emanez, bolumena lortzeko, eta, ondoren, lehorgailuarekin beroa eman diezaiokezu, burua buruz behera jarrita eta eskuila lodi biribil bat erabiliz.

# Kolore-KODEAN

Diademak, motots-gomak eta turbanteak  
belusean, eta testura epelekin.

Udazkena ilerako osagarri beteta dator,  
*lookei* itxura berriua emateko.

*Scrunchie* edo motots-goma  
da denboraldi berriko  
moda-osagarri izarra.



la perfumería

# Trendy *azazkalak*

Berdea, morea, gorria, arrosa eta grisa, udazkeneko bost tonu, denboraldi honetan azazkalez harro egoteko. Ez ihes egin *Butterfly* bildumako esmalteen lilurari; maitemindu egingo zaituzte!



**UDAZKENEKO GRISA.** Azazkal-esmaltea, *Butterfly* bilduma, 948 zk.





**GORRI ILUNA.**  
Azazkal-esmaltea,  
Butterfly bilduma,  
950 zk.



Osatu **Butterfly** bilduma bi esmalte hauekin: **udazkeneko morea, 949. zk.**; eta **udazkeneko arrosa, 952. zk.**



**UDAZKENEKO BERDEA.** Azazkal-esmaltea, Butterfly bilduma, 951 zk.

INDARTU ZURE  
*Defentsak*



# Edertasunaren GARAIA



Hartu denbora, ikasi zure azala zaintzen eta mimatzen, etxean zaudela, eroso-eroso. Azal perfektua izateko formula berriak azalduko dizkizugu. Bihurtu zure *beauty moment* une berezia.



# ZAHARTZEARI AURRE EGITEKO IRAULTZA

**Likopenoa kosmetikan aplikatzea berrikuntza bat da: zahartzeari aurre egiten dion antioxidatzaile natural bat da.**

**Oil Licopeno Antioxek** hidratatu eta leundu egiten du azala, orbanak kentzen laguntzen du eta zimurrak prebenitzen ditu. Iraultza izugarria adinaren aurkako edertasun-produktuetan.

**Zer du berezia olio honek? Likopenoa** antioxidatzaile ahaltsua da; eguzkiak edo adinak sortutako orbanak leuntzen laguntzeaz gain, larruazal sentikorrenak zaintzen ditu eta zahartzeari aurre egiten dio.

Emaitza azkarragoak eta eraginkorragoak lortzen dituzten osagai aktiboak ere baditu:

- ✓ **Jojoba-olioa:** hidratatzailea, antioxidatzailea, adinaren aurkakoa, antiseptikoa, antiinflamatorioa eta antimikrobianoa da, eta aurpegiko narritadura arinak baretzen ditu.
- ✓ **Almendra-olioa:** bikaina larruazaleko hainbat arazo tratatzeko, batez ere lehortasuna eta ekzemak.
- ✓ **Makadamia-olioa:** zimurrak agertzea saihesten du, eta eguzkiak eta adinak eragindako orbanak kontrolatzen laguntzen du.
- ✓ **Kolagenoa:** sendotasuna, malgutasuna eta hidratazioa ematen ditu.

## Hitz egin dezagun likopenoaz...

👉 Likopenoa fruitu gorriei kolore bereizgarria ematen dien landare-pigmentua da. Antiox aurpegiko olioak duena tomatetik ateratakoa da zuzenean. Kasu honetan, **Extremadurako tomatetik**, kalitate bikaineko produktua inondik ere.

👉 Kilo bat likopeno lortzeko, gutxi gorabehera 20.000 kilo tomate behar ditugu. Gaur egun, merkatuan dauden antioxidatzaile natural ahaltsuenetako bat da; **urre gorria** ere esaten zaio.

👉 Oso egokia da azalarentzat, eragin birsortzailea eta lasaigarria baitu. Likopenoak erradikal askeen eraginez sortutako estres oxidatibotik **babesten ditu zelulak**, horiek baitira zahartzearen eragile nagusiak..

👉 **Antioxidatzaile natural** horrek nabarmen atzeratzen du zahartze-prozesua, orbanak prebenitzen ditu eta ezabatzen laguntzen du.



# ZURE EDERTASUN-ZENTROA ETXEAN



## 1 Gold Mask - hidrogela

Adinaren aurkako efektua; aurpegiaren sendotasuna hobetzen du, keinu-marren eta zimurren itxura leunduz.

Larruazala leuntzen eta testura hobetzen laguntzen duten **landare-zelula amak ditu**; larruazalean peptidoen banaketa optimizatzeko gai diren **urrezko partikulak**, argitasuna eta sendotasuna emateko; eta **B3 bitamina**, kolagenoaren sintesia estimulatuz zahartze naturala prebenitzeko.

## 2 Hidrata Mask - ehuna

Hidratazio sakona. Azalaren elastikotasuna eta sendotasuna hobetzen ditu, eta hidratazio-hesia indartzen du, aktiboaren konbinazio indartsu baten bidez.

**Azido hialuroniko**z osatua dago. Berez, badago azido hialuronikoa gure azalean modu naturalean, baina ekarpen estra batek hidratazioa eta elastikotasuna hobetzen ditu. Eta **arrosa-ura**, aurpegia hidratatzen laguntzeko, besteak beste.

Bi maskarek, gainera, kutsaduraren **aurkako aktiboak eta argi urdinaren babesgarria** dituzte, eta horiek larruazala babesten dute ingurumeneko poluzioak eta pantailen erradiazioak eragindako oxidazio-estresetik.

## ERABILTZEKO GOMENDIOAK

- ✓ Araua: aurpegiak erabat garbi egon behar du, aktiboak sakon sar daitezzen.
- ✓ Txertatu zure aurpegiko edertasun-errutinan; krema hidratatzailea baino lehen jartzea da onena.
- ✓ Behar beste denboran edukitzea komeni da, ez gehiago ez gutxiago; larruazalak ezin du xurgatu behar baino gehiago. Gold, 20 minutuan; eta Hidrata, berriz, 10 minutuan.
- ✓ Eguneko edozein orduan aplikatu daiteke, baina 20:00etatik aurrera jartzea gomendatzen da; orduan aktibatzen da azalaren birsortzea.



## BUZTIN BERDEZKO MASKARA

Koipe- edo akne-joera duten larruazalak garbitzeko osagarri egokia.

Aktiboak zink-PCArekin eta buztin berdearekin batera konbinatuz gero, gehiegizko koipea orekatzen da, poroen itxura minimizatzen da eta azala matea eta berritua geratzen da.

Formula ez-komedogenikoa (ez ditu poroak buxatzen).

Astean behin edo bitan erabil daiteke, *oil free* aurpegiko tratamenduaren osagarri.

**H**artu 10-15 minutu zuretzat, aukeratu zure musika gogokoena eta erlaxatu sofan buztin berdeak aurpegian eragiten duen bitartean. Kendu gero ur askorekin.



## GORRITASUNEN AURKAKO SENSITIVE ANPOILAK

Larruazal sentikor, sumindu edo erreaktiboetarako. Gorritasunak agertzeko joera duen azal sentikorra zaintzeko bereziki diseinatutako soluzioa duten anpoilak.

Azala lasaitu, baretu eta leheneratzen du, oreka naturala berrezarritz.

Osagaien ekintza sinergikoak – azafrairearen estraktua, niazinamida eta azido boswelikoa– gorriuneak murrizten ditu, eta leundu egiten du azala.

Interferentzia-pigmentu berdeak ere baditu, gorriuneak berehala estaltzeko.

Testura arina du, eta azkar xurgatzen da.



## Sendotzeko lozioa

Leuntasuna, sendotasuna eta elastikotasuna ematen ditu, baita nutrizio plusa ere.



# Sendo **MANTENTZEA**

Hidratazioak urte osoan kezkatu behar gintuzke.

Hartu hidratazio-diziplina bat. Udazkena garai aproposa da eguzkitan, temperatura altuetan eta itsasoko kresalaren eraginpean egon den azala zaintzeko.

**GORPUTZEKO OLIO, LOZIO, GEL ETA GURINEK** azala leheneratzen laguntzen dute eta kanpoko erasoetatik babesten.





**Avena bainurako gela,** azal sentikorrerako.



**Argan bainurako gela,** azal oso lehorrerako.



→ **Almendra-lozioa.**


Oparitu lozio honen almendra-olioaren onurak azal lehorrari edo oso lehorrari. Elikatu eta leheneratu azala udaren ondoren.





# GORPUTZEKO OLIOAK ETA GURINAK...

**Almendra-olioa.** Bere testura aberatsari esker, masaje leun bat lortzen da, larruzala inguratzen duena, eta, horrez gain, nutrizioa eta leuntasuna ematen dizkiona, jatorri naturaleko landare-olio honen propietate hidratatzaile eta emolienteek esker.



**Erromero-olioa.** Azala bizkortu eta erlaxatzen du erromeroak, eta bere propietate balsamikoengatik erabili izan da.

**Mante-k Itsaso Hileko minerala.** Olio esentzial eta naturalez osatua. Nutrizio betea eta leuntasun erabatekoa ematen dizkio azalari.





# SILVER

Ile zurietarako eta metxa  
platinotarako xanpua eta maskara

# FACE



# PERFECTIONIST

Inperfekzioak minimizatzea, markak eta begi-zuloak estaltzea, larruzal uniformearekin lortzea, argitasuna ematea eta bizitasuna ematea aurpegiari.

**Face Perfectionist** bildumak zure azala nabarmentzeko behar duzun guztia eskaintzen dizu.

F

ace Perfectionist bilduma, 3 produktuk osatua, beti desiratu duzun larruzal perfektua lortzeko sortu da.

### Primer Face Perfectionist

azalaren inperfekzioak minimizatzen ditu, eta belusaren leuntasuna ematen du. Testura leuna eta koloregabea du, eta *film* homogeenoa gisa jarduten du larruzalean.



### Ondoren, Camouflage Perfectionist

**Zuzentzailearen** txanda da; akabera naturala eta testura estaltzailea duenez, aurpegiko eta gorputzeko edozein ataletan erabil daiteke. Ezin hobea da begi-zuloak, gorriuneak, orbanak, orinak eta oreztak... estaltzeko.



Azkenik, *stick* formatuko argitzaile krematsua, makillajeari azken ukitua emateko aproposa. **Light Stick Perfectionistek** aurpegiko zenbait eremu nabarmentzen ditu, itxura osasungarri eta distiratsua emanez. Testura leunekoa eta estaldura modulagarrikoa. Bi tonu aukeran: xanpaina eta urrekara.





- 1. Primer Face Perfecionist.** Akatsak minimizatzen ditu eta belusaren akabera leuna ematen du. Eman *Primeren* puntu batzuk aurpegian, eta zabaldu eskuarekin krema gisa, guztiz xurgatu arte.
- 2. Camouflage Perfecionist Zuzentzailea.** Estaldura handikoa; begi-zulo ilunenetatik hasi eta gorriune nabarmenentzaraino, guztiak estaltzen ditu. Kantitate txiki bat eman, eta ondo lausotu hatz-mamiekin ukitu txikiak emanaz.
- 3. Light Stick Perfecionist** argitzaileak aurpegiko zenbait gunen nabarmenak ditu, azalaren itxura hobetuz. Zuzenean ematen da *sticketik* aurpegian, eta hatz-mamiekin edo belaki batekin lausotzen da. Azala argitsu, elikatu eta leun mantentzen da egun osoan. Zein eremu nabarmendu? Adibidez, T eremua: masailboen gaina, ezpain-ertza, lepoaldea...



ZURE NEZESERRA





# UP EYES

Begiak eta betileak  
obsesio bihurtzea  
ez da gauza berria.  
Baditugu aurtengo  
udazkenean  
begirada  
zirrargarria  
harro erakusteko  
behar dituzun  
produktuak eta  
haiek erabiltzeko  
jarraibideak.





# Ikus dezagun ZURETZAKO EYELINER ONENA

**A**urtengo udazkenean, begiak nabarmenduko ditugu. *Eyelinera* denboraldiko errege bihurtu da; ikusi nola erakutsi harro. Lerroak marrazten hasi aurretik, jakin behar duzu zein *eyeliner* mota erabili, zure trebetasunaren arabera, eta ongien nola eta non ematen dizun kontuan hartuta.

✓ **Arkatz delineatzailea**, begirada gora eta behera markatzeko eta belakiaren laguntzaz lausotzeko ezin hobea. *Look* informalagoa nahi baduzu, azpiko arkatz beltzaren ordez marroia erabili; aire naturalagoa emango dizu.

✓ **Gel delineatzailea**. Akabera bizikoa, iraunkorra eta erraz ematekoa, testurari eta pintzelez zabaltzeari esker. Ezin hobea da marra grafiko eta ausarta atsegin dutenentzat. Nahi beste lodiera sortzeko eta intentsitatearekin jolasteko aukera ematen du.

✓ **Delineatzaile likidoa**, egokia *eyeliner* klasikoa egiteko, begia luzatu eta handitzen baitu. Edozein betazal-motatarara egokitzen da. Testura likidoa du; lerro laburrak bata bestearekin lotuz, lerro fin eta zehatz bat sortzen da. Ez da komeni begi barruan ematea.



Iraupen luzeko  
begi-arkatza

Begi-arkatza,  
01 beltza eta  
03 marroia



Eyeliner Gela

Intense  
Eyeliner  
beltza

Intense  
Eyeliner  
marroia

## MAISU-UKITUA

Goiko betileetan marra mehe bat marraztuta, begirada luzatuko duzu, eta sakontasun handiagoa emango diozu; betile sarriagoak eta nabarmenagoak dituzula emango du.

# AURKITU ZURE BETILE-MASKARA

**B**olumena eman, definitu eta nabarmendu. Gakoa eskuila da, eta bakoitzaren onurak erakutsiko dizkizugu, zure beharretara hobekien egokitzen dena aukeratu dezazun.

**1 Long Xtrem**, luzera handiagoa lortzeko.

**2 Rock & Volume**, eskuila lodienarekin, bolumen eta kurbadura handiagorako.

**3 Transparente**, betileei dentsitatea emateko eta bekainak finkatzeko.

**4 Volume 4 Dimensiones**, ile-eskuilak akabera naturalagoa lortzen du: betile irekiak eta pikorrik gabeak.

**5 Maxi Volume**, beltza eta marroia, eskuila txikia bolumen maximoa lortzeko. Eskuilaren tamaina ezin hobea da betilerik laburren etara ere iristeko.



## GOMENDIOA

Erabili zure maskararen punta betileak ondo definitu eta bereizteko.

## BADAKIZU NOLA ERABILTZEN DEN BETILEETAKO MASKARA?

Sustraitik puntetara, sigi-saga mugituz, bolumen maximoa lortzeko.



Kids



face  
PERFECTIONIST  
deliplus  
COLOR

